



JARRAIBIDEAK, Hezkuntzako sailburuordearenak, 2020-21 ikasturterako EAEko oinarrizko hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen ebaluazioa, mailaz igotzea eta titulazioa arautzen dituenak, COVID-19ak eragindako krisi-egoeraren aurrean.

Osasunaren Mundu Erakundeak **2020ko martxoaren 11n** deklaraturako COVID-19aren **munduko pandemiaren** ondorioz, euskal hezkuntza-sistemak zenbait **neurri** hartu zuen **ikasleen hezkuntza-prozesuaren jarraipena sustatzeko**; era berean, **estrategiak eta ebaluazio-jarraibideak** ezarri zituen ikasleen **hezkuntza-progresioa** eta oinarrizko gaitasunen garapena **ezagutzeko eta bultzatzeko**. Aldi berean, ikasleen ahalegina behar bezala balora zedin eta ikasleen eskola-progresioan pandemiak ahalik eta eraginik txikiena izan zezan zaindu zen.

2020-2021 ikasturtea hasi, eta oraindik **pandemiaren eraginpean jarraitzen dugunez gero**, aldi baterako aparteko neurriak hartzen jarraitu behar izan da, betiere ikasle guztien hezkuntza-eskubidea bermatzeko inklusibitatearen eta aukera-berdintasunaren printzipioen barruan. Nolanahi ere, hori guztia egingo da kompetentzien arloan egindako aurrerapenak behar bezala eta zorrotasunez balora daitezen bermatu eta sustatuko duen esparruan, eta irakatsi eta ikasteko prozesua garatu den salbuespenezko testuingurua kontuan hartuz.

Unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren arloan premiazko neurriak hartzeari buruzko Errege Lege Dekretuak (31/2020 Errege Lege Dekretua, irailaren 29koa), COVID-19aren pandemiaren ondoriozko egoeran laguntze aldera, **pandemiaren iraupenarekin lotzen diren aldi baterako zenbait neurri eta egokitzapen berezi ezartzen ditu.**

Aldi baterako **neurri** horiek **eragina dute**, beste hezkuntza-eremu batzuen artean, lehen hezkuntzako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta lanbide-heziketako maila guztietarako **ebaluazio- eta promozio-irizpideen aldaketan**, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua, batxiler-titulua eta lanbide-heziketari dagozkion **titulazioak lortzeko irizpideetan** ere.

EAEan, Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko dekretu kurrikularrek (**236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak, eta 127/2016 Dekretua, irailaren 6koa, Batxilergoaren curriculuma finkatu eta EAEn ezartzen duenak**), ezartzen dituzten **ebaluazio-prozesu eta ikasleen titulazio-erabakien inguruko zenbait arau aldatu beharko dira** pandemiak eragindako egoeretara.

Era berean, *Oinarrizko Hezkuntzan ikasleen ebaluazioa arautzen duen Aginduan (AGINDUA, 2008ko uztailaren 7koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena)* eta *Batxilergoan antolamendua eta ebaluatzeko prozesua arautzen dituen Aginduan (AGINDUA, 2010eko uztailaren 26koa)* aldaketak egin behar dira ikastetxeetako **ebaluazio-prozesuak** bidera daitezen. Bi Agindu horien edukiak erreferentziazkoa izaten jarraitzen du, maila handiagoko indarreko arauan ezartzen denaren aurka egiten ez duten guztian.



Gauzak horrela, **jarraibide** hauek egin dira, ondorengo helburuekin: COVID-19ak ikaste-irakaste jardueran sortutako egoerari erantzuteko; **EAEko ikasleen ebaluazioan objektibotasuna bermatuko duten irizpide-beharrari erantzuteko; eta** baita ikasle horien **ahalegin eta lorpen** akademikoak **aitortzeko** ere. Hori guztia honako printzipio hauen pean egin da: ekitatea eta aukera-berdintasuna, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, efizientzia eta beharra.

Ondorengo jarraibide hauen indarraldia mugatuko da dagokion araua indarrean dagoen aldira, edo, bestela, luzatuko da 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, (LOMLOE) ezartzeko egutegiaren barruan landutako ebaluazio-agindu berria argitaratu arte:

Lehena. Xedea eta aplikazio-esparrua

Jarraibide hauen helburua da EAEko ikastetxe guztietako oinarrizko hezkuntzako eta batxilergoko ikasleak ebaluatzeko, mailaz igarotzeko eta titulazioa lortzeko prozesuak 2020-21 ikasturterako egokitzea.

Bigarrena. Ebaluazio-erreferenteak

Jarraibide hauetan jasotako xedapenen kontra egiten ez duen orotan, eta jarraibide hauek indarrean dauden bitartean, honako dekretu hauen edukia hartuko da kontuan 2020-2021 ikasturteko ebaluazio-prozesuan:

- 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, **Oinarrizko** Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- 127/2016 DEKRETUA, irailaren 6koa, **Batxilergoaren** curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

Edonola ere, hezkuntza-etapa bakoitzaren irteera-profilean zehaztutako oinarrizko kompetentzien garapen-maila izango da ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko prozesuaren funtsezko erreferentea. Kompetentzien garapen-maila ebaluatu eta zehaztuko da, Curriculumean, ICPan eta ikasturte bakoitzerako programazio didaktikoetan zehaztutako arloen eta irakasgaien helburuen lorpen-mailaren bidez, eta dagozkion ebaluazio-irizpideen arabera aztertu beharko da.

Gainera, ikasleen dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez balioetsi eta baloratzeko eskubidea kontuan hartu behar da, EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrari buruzko Dekretuan (**201/2008 Dekretua**, abenduaren 2koa) 9. artikuluan jaso bezala.

Hirugarrena. 2020-2021 ikasturterako programazio didaktikoen egokitzapena

Programazio didaktikoa tresna baliagarria da ikastetxearen curriculum-proiektua arlo edo irakasgai bakoitzean kokatzeko eta zehazteko.



Pandemiak ikastetxe bakoitzean izan duen eraginak irakaste-ikasteko prozesuaren elementuak baldintzatu ditu (metodologia, baliabide didaktikoak eta oinarrizko curriculum-alderdiak ebaluatzeko eta baloratzeko prozedurak), eta horiek aintzat hartu beharko dira ebaluazioari, kalifikazioari, mailaz igarotzeari eta titulazioari buruzko erabakiak hartzeko garaian.

Horrela, nork bere autonomia pedagogikoaren garapenean eta etapak arautzen dituzten dekretuetan ezarritakoaren arabera, ikastetxe bakoitzak ebaluazio-unitateetan behar besteko kompetentzia-maila lortu dela bermatzeko oinarrizkoak diren curriculum-alderdiak hautatu beharko ditu. Kompetentzia-maila hori funtsezko erreferentzia izango da erabakiak hartzeko garaian.

Laugarrena. Ebaluazioari buruzko jarraibide orokorrak

Ikastetxeek eta irakasleek askotariko ebaluazio-prozedurak erabiliko dituzte. Prozedura horiek bat etorriko dira *erabilitako hezkuntza-metodologiarekin* eta egokiak izango dira etapa eta irakasgai bakoitzerako, baita ikasleen gaitasunetarako eta ezaugarrietarako ere. Nolanahi ere, etengabeko ebaluazioan oinarrituko dira.

Hartara, ikasleen ikaskuntzen azken ebaluazioak ikasturte osoan egin diren ebaluazio guztiak kontuan hartuko ditu, eta bereziki baloratuko du alde aurretik definitutako ezinbesteko ikaskuntzen eta kompetentzien garapena.

Ikastetxeek eta irakasleek ikasturte osoan egindako lanaren balorazioa jasoko dute ikasleen ebaluazio-txostenetan. Txosten horiek informatzaileak eta orientatzaileak izango dira, eta, hala badagokie, pandemiaren inguruabarren ondorioz ikasturtean ikasi ez diren ezinbesteko ikaskuntzak zehaztuko dituzte. Txosten horien arabera, eta beharrezkoa izanez gero, ezarriko dira 2021-2022 ikasturterako errekonstruzio- eta erreformazko-programak. Programa horiek hiru mailatan ezar daitezke (banakakoa, taldekoa edo ikastetxekoa), kasua bakoitzean COVID-19aren ondoriozko egoerak izan duen eraginaren arabera, eta urteko Memorian jasoko dira.

Kurtsoa errepikatzea salbuespen-neurria izango da, sendotasunez argudiatuta eta berreskuratzeko plan batekin lagunduta hartu beharko dena.

Bosgarrena. Ebaluazioari, mailaz promozionatzea eta titulazioari buruzko jarraibide espezifikoak, hezkuntza-etapen arabera

Jarraibide hauetako eranskinetan (I. Eranskina_Lehen Hezkuntza, II. Eranskina_Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, III. Eranskina_Batxilergoa) lehenengo jarraibidean aipatzen diren hezkuntza-etapa bakoitzerako zehaztapen eta argibide espezifikoak eskaintzen dira

Seigarrena. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ebaluazioa



Eskola inklusiboaren esparruan, ebaluazio-prozesuak ikasle bakoitzaren ezaugarrietara egokitu behar dira, baita ikasle horiek oinarrizko gaitasunak garatzeko dituzten ahalmenetara ere, eta, hartara, ezaugarri eta garapen horiek izango dituzte erreferentzia.

Hezkuntza-laguntzarako premia bereziak dituzten ikasleen ebaluazioan inklusio-printzipioari jarraituko zaio, eta bereizkeriarik eza eta benetako berdintasuna ziurtatuko da hezkuntza-sisteman sartzeko eta egoteko.

Arreta pertsonalizatuko planak funtsezko **erreferentzia** izango dira **ebaluazio-prozesuan**. Arreta pertsonalizatuko plan horietan ezarriko dira arlo edo irakasgai bakoitzeko oinarrizko kompetentziak **ebalutzeko eta mailaz igotzeko irizpideak**.

Lan-plangintza pertsonalizatuak curriculum-egokitzapen adierazgarriak ezartzen dituenean, egokitzapen horretarako onartutako ebalutzeko eta mailaz igotzeko irizpideak izango dira kontuan. Ikusi jarraibide hauen IV. eranskinean ondorio horretarako ezarritakoa (Dokumentazio akademikoa).

Irakasle-taldeak ezarriko ditu **ebaluazio-neurri eta -tresnarik** egokienak, ebaluazioak egiteko baldintzak egoki daitezen hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen beharretara.

Zazpigarrena. Norberaren edo etxeko senideen osasunerako arriskutsua izateagatik edo bestelako antzeko inguruabarrengatik, eskoletara bertaratzen ez diren ikasleen ebaluazioa.

Egoera epidemiko-sanitarioa dela eta, aurretik gaixotasunak dituzten ikasle batzuek edo aurretik gaixo dauden pertsonekin bizi diren ikasle batzuek modu ez-presentzialean jarraitu behar izan dute ikaste-irakaste prozesua.

Kasu horietan ikastetxeek ebaluazio-prozedura ez-presentzialak erabili ahal izango dituzte. Dokumentu honen VI. Eranskinean jasotzen dira argibideak eta proposamenak.

Zortzigarrena. Ebaluazio-dokumentuak

Ebaluazio-dokumentu ofizialak dira ikaslearen Ikasketa Espedientea, Ikasketen Historiala, Ebaluazio Aktak, Lekuz aldatzeagatik txosten pertsonala, azken ebaluazioan lortutako mailaren berri ematen duen txostena eta orientazio-aholkua.

IV. eranskinean jasotzen dira dokumentu horiek betetzean kontuan izan beharreko zehaztapenak.

Bederatzigarrena. Berrikusteko eta erreklamatzeko prozedura

Ikasleen ebaluazio objektiborako eskubidea bermatuko bada, ikastetxeek kalifikazioak berrikusteko eta erreklamatzeko prozedura jakinaraziko dute.

V. eranskinean jasotzen da berrikusteko eta erreklamatzeko barne- eta kanpo-prozedura.



Hamargarrena. Irakaste-prozesuen ebaluazioa

Irakasleek ikasleen ikasketak ez ezik, irakaste-prozesuak eta irakaslan bera ere ebaluatuko dituzte, eta horretarako zenbait lorpen-adierazle ezarriko da programazio didaktikoetan. Ikasturtearen amaieran, irakasle taldeak ebaluazioaren emaitzak bildu, eta prozesuaren hobekuntza sustatzeko aldaketak proposatu edo bidezko erabakiak hartuko ditu. Erabaki horiek ikastetxearen urteko memorian edo dokumentu baliokidean islatuko dira.

Ikastetxeek ohiko edo ezohiko neurriak ezarriko dituzte haien curriculum-proposamenei eta irakaskuntza-jarduerari dagokionez. Neurri horiek hobekuntza-helburuetan zehaztuko dira, eta aukera emango dute, ikasleak ikastera motibatzen eta zailtasunak gainditzeko familiekin eta hezkuntza-laguntzarako zerbitzuekin elkarlanean.

Hamaikagarrena. Hezkuntza Ikuskaritzaren ikuskatzea

Hezkuntzako Ikuskaritzari dagozkio ebaluazioa-eremuan aholkularitza eta ikuskatze-lanak egitea: ebaluazio-prozesuaren garapenean, ebaluazio-prozesua hobetzeko neurriak hartzean, aplikazio informatikoak betetzean, eta baita dagozkion Ikasketa Historiak - Ziurtagiri Digitalak aplikazioaren bidez betetzean ere.

Ikastetxeetara egiten dituzten bisitetan, ikuskariak zuzendaritza-taldearekin, irakasleekin eta ebaluazioaren gainerako arduradunekin bilduko dira, eta arreta berezia jarriko diote ikasleen ebaluazioaren emaitzen balorazioari eta analisiari.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 5a

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

BEGOÑA PEDROSA LOBATO
Hezkuntzako Sailburuordea